2022ko abenduan erregistratutako langabezia

2022ko abenduan zehar LANBIDEko bulegoetan erregistratutako langabe kopurua nahiko egonkor mantendu da; 110.798ekoa da, hau da, aurreko hilean baino 88 langabe gehiago (% 0,08ko gorakada). Aurtengo abenduak, iazkoak eta 2020koak baino bilakaera okerragoa izan du; baina, 2019koak baino hobeagoa, osasun krisia hasi aurretikoa, hain zuzen ere.

Nabarmendu behar da, azaro honetan erregistratutako langabetu-kopurua 2008tik hilabete horretan izandako txikiena dela. Ordutik hona, 2019koa izan da gehien hurbiltzen zaiona, baina hil honetan baino 3.364 langabe gehiago zenbatu ziren.



	abe.-08	abe.-09	abe.-10	abe.-11	abe.-12	abe.-13	abe.-14	abe.-15	abe.-16	abe.-17	abe.-18	abe.-19	abe.-20	abe.-21	abe.-22
Saldoa	5.899	747	2.910	420	-1.98	-7.32	-2.95	-1.84	-1.52	-746	-1.82	385	-3.19	-2.93	88

Aurreko urteko urriarekin alderatuz, 4.047 pertsonatan murriztu da langabezia. Errekuperazio azkar baten ondotik, urte-arteko saldoaren hobekuntza moteltzen ari da. V erako profila du krisiak; langabeziaren murrizketa azkar eta haundi baten ondotik, ezaugarri berberak dituen errekuperazioa.

Gaur egun, erregistratutako langabeen kopurua, 2013ko martxoko maximo historikoan baino 68.543 pertsona gutxiagokoa da. 2007ko ekainean baino 39.843 langabe gehiago daude, orduan erregistratu baitzen azken hamarkadetako minimo historikoa.

Beste abenduetako balio maximo eta minimoei dagokienez, urtaroen eragina neutralizatzeko, aldeak pixka bat murrizten dira balio maximo eta minimoarekiko. 2022ko abenduko langabeen kopurua 2012ko abendukoa baino 58.285 txikiagoa da



2022ko abenduan erregistratutako langabezia

- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean 734 pertsonatan hazi da langabezia; emakumeen artean, berriz, 646 pertsonatan murriztu da. Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-3.386) emakumezkoen arten baino (-661). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2019ko abenduarekin alderatuz, 3.323 gizonezko gutxiago daude langabezian, emakumezkoak, berriz, 41 gutxiago dira soilik. Gaur egun langabeen % 56,8 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan, nabarmentzekoa da 25 urtetik beherakoen artean langabezia % 4,33 murriztu dela; 54 urtetik gorakoen artean ere murriztu egin baina modu apalagoan (-% 0,71). Beste adin tarte guztietan hazi egin da langabezia.

Urte arteko saldoan, korrelazio zuzena dago adina eta langabeziaren jaitsieraren artean; jaitsiera handienak 45 urtetik beherakoak dira. Urteko erreferentzian, 54 urtetik gorakoen artean soilik igo da langabezia (+%1,85).

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Abenduan, nabarmentzekoa da langabeziaren beherakada erlatiboa lehen sektorean (-%3,16) eta aurreko enplegurik gabekoen artean (-%2,26). Aldiz, nabarmentzekoa da gorakada industrian (% 3,80) eta, neurri txikiagoan, zerbitzuetan (% 0,06). Zehaztasun-maila handiago batean, nabarmentzekoak dira langabe kopuruen jaitsierak honako taldetan: txikizkako merkataritza, aurretiko lan-esperientziarik gabekoak, egoitza-establezimenduetako asistentziari lotutakoak eta eraikinetako zerbitzuei eta lorezaintzako jarduerei lotutakoak. Haatik, nabarmen igo da langabezia aldi baterako enpresetatik datozenen artean; eta baita, neurri txikiagoan, hezkuntza, produktu metalikoen fabrikazio eta metalurgiari lotutako industrietatik datozenen artean ere.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren beherakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

47 Txikizkako merkataritza	-318
Lan-esperientziarik gabe	-301
87 Egoitza-establezimenduetako laguntza	-289
81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	-248
86 Osasun-jarduerak	-139
88 Ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuetako jarduerak	-133
84 Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza	-107

Aitzitik, erregistratutako langabezia gehien handitu duten jarduerak honako hauek izan dira:

78 Enpleguarekin lotutako jarduerak	1.220
85 Hezkuntza	322
25 Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria izan ezik	136
24 Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko produktuak	102

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

2022ko abenduan erregistratutako langabezia

Hilabete honetan, iraupen luzeko langabezia 488 pertsonatan murriztu da (- %0,9), eta iraupen laburrekoa 576 pertsonatan hazi da (+% 1,03). Urteko erreferentzian, jaitsiera handiagoa ikusten da epe luzeko langabeen kolektiboan, % 6,9 jaitsi baita; iraupen laburreko langabeen artean, berriz, % 0,06 baino ez da murriztu. Krisiaren luzapenak iraupen luzeko langabeziaren igoera esanguratsua eragin zuen, eta, zorionez, hori murrizten ari da; baina oraindik 54.390 langabe (% 49,1) epe luzekoak dira.

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean; baita emakume eta Bizkaian erroldatutakoen artean ere. Azken hilabetean, bilakaera hoberena, gizonezkoek, 30-44 urte artekoek k eta Araban bizi direnek izan dute.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Hilabete honetan, Bizkaian murriztu egin da langabezia, Araban egonkor mantendu eta Gipuzkoan, hazi egin da. Araban, 2022ko azaroan baino 7 langabe gutxiago daude; guztira 19.000 pertsona daude egoera honetan. Bizkaian 62.361 pertsona daude langabezian, 2022ko azaroan baino 256 gutxiago; % 0,41eko jaitsiera izan da. Gipuzkoan 351 langabe gehiago daude aurreko hilean baino; 29.437 pertsona (% 1,21eko igoera).

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 3,88ko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 3,65ko murrizketarekin, eta, azkenik, Araban % 2,13 murriztu da langabezia.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon soilik murriztu da langabezia da 40 pertsona gutxiago baitaude langabezian; Gasteizen 77 langabe gehiago daude eta Donostian 28 gehiago.

Eskualdeetako datuak aztertuz, langabezia Ezkerraldean jaitsi da gehien 391 langabe gutxiago baitaude; beherakada izan duten beste eskualde batzuk Txorierri (-78), Aiarako Eskualdea (-52), Gobela (-50) eta Uribealdea (-49) dira. Bestalde, gorakada handiena Durangaldean izan da (+250).

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Alonsotegi (% 17,33), Oion (% 16,21), Sestao (% 15,84), Lapuebla de Labarca (% 15,2) eta Balmaseda (% 14,63).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2022ko abenduan 36.993 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 399 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,4k gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea du. 20.423 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,4 dira horiek. 14.833 langabek (% 13,39), berriz, langabezia prestazioaren bat jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 36), Bizkaian % 32,4koa da eta Araban % 32,6koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,39 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz, 0,40 jaitsi da.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,9 (18.682 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia hazi egin da atzerritarren artean (+% 0,48); bertakoen artean, berriz, egonkor mantendu da. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 0,65 hazi da, eta bertakoen artean % 4,33 murriztu.

2022ko abenduan erregistratutako langabezia

Langabe atzerritarren % 33,9 Afrika iparraldekoak dira, % 23,3 Latinoamerikatik datoz, % 17,5 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,2 Asiatik. Abenduan Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (+68).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 60,1ek (65.585 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 48 langabe gutxiago erregistratu dira; % 0,07 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 4,93 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan % 0,21 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean, aldiz, murriztu egin da; % 3,86, hain zuzen ere.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 20.690 dira, hau da, langabeen % 18,7. Talde honetan, abenduan, % 0,13 murriztu da langabezia, eta azken urtean, ere, murriztu egin da; % 0,82, hain zuzen ere.

Azkenik, langabeen % 12,5ek (13.815 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 1,40 hazi da langabezia azken hilabetean eta, azken urtean, aldiz, % 0,22koa izan da murrizketa.

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan, aurreko hilean baino 33.512 langabe gutxiago daude (% 1,52ko beherakada). Guztira 2.837.653 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 0,08 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 0,37 hazi da, Errioxan % 0,68 hazi da, Kantabrian % 0,41 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 0,76 murriztu da. Katalunian % 0,76 murriztu da eta Madrilen, % 2,23koa izan da murrizketa.

Lan-eskatzaile langabeak 2022ko abenduan

	Abe-2022	Aza-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	47.845	47.111	734	1,56
EMAKUMEZKOAK	62.953	63.599	-646	-1,02
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	16.933	17.334	-401	-2,31
GIZONEZKOAK	8.273	8.330	-57	-0,68
EMAKUMEZKOAK	8.660	9.004	-344	-3,82
25-44 URTE:				
GUZTIRA	33.506	32.822	684	2,08
GIZONEZKOAK	13.413	12.744	669	5,25
EMAKUMEZKOAK	20.093	20.078	15	0,07
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.359	60.554	-195	-0,32
GIZONEZKOAK	26.159	26.037	122	0,47
EMAKUMEZKOAK	34.200	34.517	-317	-0,92
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.179	2.250	-71	-3,16
INDUSTRIA	11.738	11.308	430	3,80
ERAIKUNTZA	6.428	6.442	-14	-0,22
ZERBITZUAK	77.420	77.376	44	0,06
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.033	13.334	-301	-2,26
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.000	19.007	-7	-0,04

BIZKAIA	62.361	62.617	-256	-0,41
GIPUZKOA	29.437	29.086	351	1,21
EAE	**110.798**	**110.710**	**88**	**0,08**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.744	10,0%	1	0,03	-283	-7,03
Oarsoaldea	3.361	9,2%	17	0,51	-152	-4,33
Donostia-S.Seb.	6.984	7,9%	28	0,40	-383	-5,20
Donost.Mendebaldea	2.971	7,9%	70	2,41	-99	-3,22
Tolosaldea	1.869	7,9%	41	2,24	-26	-1,37
Urola Erdia	1.201	7,7%	33	2,83	-15	-1,23
Goiherri	1.671	7,7%	18	1,09	111	7,12
Deba Garaia	2.417	8,0%	46	1,94	-53	-2,15
Deba Behera	2.640	10,0%	53	2,05	-93	-3,40
Urola Garaia	1.073	8,7%	5	0,47	13	1,23
Urola Kosta	1.506	6,6%	39	2,66	-136	-8,28
GIPUZKOA	**29.437**	**8,3%**	**351**	**1,21**	**-1.116**	**-3,65**
Vitoria-Gasteiz	14.493	11,5%	77	0,53	-487	-3,25
Aialako Ibarra	2.190	11,7%	-52	-2,32	-88	-3,86
Arabar Errioxa	597	11,1%	6	1,02	-98	-14,10
Arabako lautada	682	9,0%	-23	-3,26	-29	-4,08
Gorbeia inguruak	285	6,1%	-10	-3,39	-31	-9,81
Arabako Ibarrak	416	8,1%	11	2,72	16	4,00
Arabako Mendialdea	89	5,7%	-3	-3,26	-13	-12,75
ARABA	**19.000**	**11,4%**	**-7**	**-0,04**	**-414**	**-2,13**
Gobela	4.378	8,7%	-50	-1,13	-249	-5,38
Txorierri	2.018	8,8%	-78	-3,72	-132	-6,14
Uribealdea	2.822	8,5%	-49	-1,71	-203	-6,71
Durangaldea	3.459	9,3%	250	7,79	-39	-1,11
Busturialdea	2.077	9,7%	23	1,12	-128	-5,80
Lea-Artibai	1.001	8,3%	47	4,93	-57	-5,39
Enkarterriak	1.870	12,3%	-17	-0,90	-56	-2,91
Arratia-Zornotza	1.439	8,3%	42	3,01	-126	-8,05
Arratia-Nerbioi	1.281	10,0%	-31	-2,36	-19	-1,46
Bilbo	21.606	12,8%	-40	-0,18	-525	-2,37
Ezkerraldea	15.978	12,9%	-391	-2,39	-882	-5,23
Ibaizabal	4.362	10,8%	43	1,00	-85	-1,91
BIZKAIA	**62.361**	**11,2%**	**-256**	**-0,41**	**-2.517**	**-3,88**
EAE	**110.798**	**10,3%**	**88**	**0,08**	**-4.047**	**-3,52**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.